

Herrikide agurgarria,

COVID19ak eragindako krisiaren leuntze fasean sarturik gaude, normaltasunaren bidean. Badirudi gogorrena pasa dela, eta karrikara ateratzea ahalbideratua dago baldintza bereziekin. Hala ere, kontutan hartuta krisiak utzitako ondorio gogorrak, ezin gara erabat lasaitu, berriz berdinerara bueltatzeko arriskua hor baitago.

Baina kanpora ateratzea, harremanak izatea eta haize freskoa hartzea ona da guziontzat, beti ere bete beharreko segurtasun neurriekin. Hauen artean, adituen arabera, guttienez **bi metroko distantzia mantentzea** garrantzitsuenetakoa izanik.

Ildo honetan, **Lesakako Udalak herriaren erdiko gunean oinezkoen espazioa zabaltzea erabaki du**. Nafarroako Gobernuaren gomendioetako bat da errandakoa, SND/427/2020 Agindu Foralean azaldua.

Hala:

- **Beheko Plaza eta Zarandia kaleko gune batzuk, bai trafikora bai aparkaleku gisa itxiko dira** eta bertako bizilagunen aparkaleku pribatuetara iristea bakarrik izanen da posible
- Karga-deskargarako gune konketuak definituko dira.
- Bertzalde, kontutan hartuta **Plaza Zaharra eta Arretxea kaleetan** trafikoa norabide bakarrekoa dela, **espaloia zabalduko da, eta ibilgailuen abiadura muga murriztu**.

Aipatu neurriak malguak eta behin-behinekoak dira, printzipioz krisiak iraun bitartean mantenduko ditugunak, eta beharra ikusiz gero egokitu daitezke. Badakigu gure eguneroko ohituretan aldaketak eraginen dituela, baina Udal honek segurtasuna bermatzea du lehentasuna, kasu honetan pertsonen arteko guttienerako distantzia mantentzen erraztea.

Egokitze lanak ekainaren 4tik aitzinera hasiko dira, eta egin ahala kaleak trafikora ixten eta espaloiak zabaltzen joanen dira.

Edozein zalantza izanez gero, Herriko Etxean kontsultatu dezakezue.

Ongi izan

